

## **COLABORABORAcamp**

**Lekua:** Zorrotzaurreko penintsula, Bilbon (Bizkaia)  
**Modalitatea:** sormena/lankidetzeta/gizarte-partaidetzeta  
**Helburua:** gizarte eta kultura esku-hartzea  
**Egunak:** uztailaren 18tik 29ra  
**Adina:** 20-25 urte  
**Plazak:** 10  
**Mota:** estatukoa  
**Hizkuntza:** gaztelania eta euskara  
**Kuota:** 72 €

### **INGURUAREN DESKRIBAPEN LABURRA**

Zorrotzaurreko penintsula Bilboren erdigunean kokatuta dago, zehazki, Deustuko kanalean. XX. mende hasieran garatzen hasi zen, kanala ireki zenean, industriaren zabalkunde betean. Bere goraldia 1950eko hamarkadan izan zen, bostehuna langile zituzten lantegi handiak izan zituenean. Baina 1970eko hamarkadan, bertako enpresak probintziako beste toki batzuetara mugitu ziren, eta auzoan bertan behera utzitako industriagune batzuk baino ez ziren geratu; gaur egun ere, bertan diraute.

1989an auzoa biziberritzeko ideia lantzen hasi zen. 2003an, Zorrotzaurreko Batzorde Kudeatzaileak arkitekturako Pritzker saridun Zaha Hadid arkitekto ingeles-irakiarra hautatu zuen lan hartarako. Bere lantaldeak plan zuzendaria aurkeztu zuen 2007ko urrian. Plan hartan erabaki zen penintsula irla bilakatuko dela; zortzi zubiren bidez lotuta geratuko dela Abando, Basurtu-Zorrotza eta Deusturekin; eta bertan 5.680 etxebizitza eraikiko direla.

Obrak 2010ean hasi dira. Bilbao berrizteko asmorik handieneko proiektua bilakatu da dagoeneko.

### **COLABORABORAcamp AUZOLANDEGIAREN DESKRIBAPENA**

*COLABORABORAcamp* lankidetzeta-prozesuetan, tokiko garapenean eta sormen aplikatua interesatuta dauden 10 gazteri zuzenduriko auzolandegia da, hau da, hiriaren eraikuntza sozialari lagunduko dion esku-hartze esperientzia Zorrotzaurreko penintsulan.

Bilboko gune postindustrial honen eraldaketa-prozesu hori artearen, sormenaren eta berrikuntzaren bidez interpretatzeko ariketa egitean datza lana. Datozen 20 urteetan, auzo hau 500 auzokidekoa izatetik 15.000 auzokidekoa izatera pasatuko da, gizarte- eta ekonomia-aldetik horrek dakarren guztiarekin.

Hamabi egunez, sormen- eta gizarte- eta kultura-bitartekaritzan adituak diren 3 begiralarekin eta sormeneko hainbat esparrutako profesionalarekin (gonbidatutako adituak) egongo dira gazteak. Horrela, zenbait belaunaldiko multzo interesgarria osatuko dute, erabateko bizikidetzan egongo dena.

Taldearen lana Zorrotzaurren benetako esku-hartze prozesua proposatu eta garatzea izango da, auzokideak eta bestelako tokiko eragile batzuk engaiatuko dituen. Hainbat neurritako industriaguneak daude, eta han edonolako jarduerak burutu daitezke (tailerrak, ikuskizunak, hitzaldiak, topaketak eta abar).

**Parte hartzeko eskariarekin batera, auzolandegi honetan aritzeko motibazio pertsonalak azalduko dituen gutuna/bideoa/aurkezpena entregatu beharko da.** Gainera, nahi duenak proiektu, lan eta kezka pertsonalak erakutsiko dituen materiala (grafikoa nahiz ikus-entzunezkoa) bidali ahal izango du. Bidalketa honako helbidera egin beharko da:

*Eusko Jaurlaritz  
Kultura Saila  
Gazteria Zuzendaritza / Auzolandegiak  
Donostia-San Sebastián kalea 1  
01010 Vitoria-Gasteiz*

---

## LANAREN DESKRIBAPENA

Jardueren egitarauak zenbait eguneko bizpahiru tailer nagusi izango ditu:

**Ingurua ezagutzea:** Zorrotzaurre hiriko alde oso esanguratsua da, ezagutu eta ikertu beharreko kokapena eta testuinguru sozioekonomikoa duena, auzoaren arazoez zuzenean jabetu eta horiez arduratzen ari direnak nortzuk diren jakingo bada.

**Araoetarantz ihes egiten:** arazo horiek ulertzeko, beharrezkoa da inplikatura daudenekin batera egoeraren azterketa xehekatua egitea. Horrela, non jardun dezakegun jakingo dugu, bai eta konponbidea aurkitzen lagundu ere.

**Proposamenak garatzen:** tailer honetan, "0tik 100era" izeneko proiektua abiarazi nahi da, COLABORABORAcamp-en garatutako ekimenak hiriarekin konektatuko dituen.

---

## HELBURUAK

Funtsezko helburua gazteen sormena eta gizarte parte-hartzea sustatzea da.

- Irudimena eta sormena garapen pertsonalaren eta profesionalaren "lehengai" gisa bultzatzea.
- Kritikotasuna eta norberaren irizpide propioak sortzeko gaitasuna indartzea; norberaren askatasuna eta talde-lanean aritzeko gaitasuna garatzea.
- Diziplinarreko, multimedia eta kulturareko jarrerak bultzatzea.
- Komunikazio- eta harreman-trebetasunak garatzea; arreta berezia emango zaio jendaurrean adierazteko gaitasunari.
- Proaktibitatea sustatzea, kolektibora eta elkarteetara bideratutako interesak eta proiektuak abiarazteko, eta horrela autokudeaketa aldeztu eta nork bere ekimenak abiarazteko gogoak indartuta.

## **\_\_AISIAREN ETA BIZIKIDETZAREN ARLOKO ZEHARKAKO JARDUERAK**

Lantalde bana antolatuko da zeregin bakoitzerako (gosaria eta afaria prestatzea, kasu), eta aisia-jarduerak taldean erabakiko dira (filmak ikustea, txangoak egitea eta abar). Gainera, gonbidatutako profesionalek eta adituek denbora pasatuko dute parte-hartzaileekin, auzolandegian erabateko bizikidetzan ariko baitira denak.

Bestelako jarduerak ere gauzatuko dira, adibidez, zineforuma (filmak proiektatzea eta gero horien inguruan eztabaidatzea), Bilboko hainbat azpiegiturara bisitaldi soziokulturala egitea (baita artisten lantegietara edo proiektuen bulegoetara ere), Donostiarako txangoa, kontzertuak... Agur-jaiaren diseinua eta prestakuntza, auzolandegian landutako guztiaren aplikazio praktikoa gisa.

## **\_\_\_\_\_AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK**

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Dutxarako eta igerilekurako toalla
- Berokiak eta euritako arropak
- Kirol egiteko oinetakoak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

## **\_\_\_\_\_AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO DOKUMENTUAK**

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaporte
- **Osasun Txartel Indibiduala**

## **\_\_\_\_\_AUZOLANDEGIAREN KOKAPENA ETA OSTATUA**

### **Auzolandegiaren kokapena:**

Bilbon (Bizkaia), zehazki, ibaian osatutako Zorrotzaurre penintsulan.

**Ostatua:** auzolandegiak eta garatuko diren jarduerak antzinako industriagune batean burutuko dira. Bertan honakoak daude, gaur egun:

- Bulegoa.
- Erabilera anitzeko lanerako gunea (170 m) + patio irekia, beste pabilioi batzuekin partekatua.
- Ikuskizunetarako argiztapen berezia, Internetetarako konexioa, WiFia.
- Komunak, sukalde eramangarria, lo egiteko egokitutako gunea.

[www.zawpbilbao.com](http://www.zawpbilbao.com)

---

## **AUZOLANDEGIAN HASTEA**

Auzolandegia lehen egunean hasiko da, 11:00etan (topagunea aurrerago adostuko dugu).

Ordu horretarako iritsi ezin denak –betiere, justifikatutako arrazoi bat dela medio–, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du auzolandegira.

---

## **NOLA IRITSI AUZOLANDEGIRA**

Estekak ikusteko, sakatu “Ctrl” eta egizu klik testuaren gainean:

Bilbori buruzko informazioa:

[Bilbao Turismo – Bilboko Udala](#)

[Zorrotzaurre auzoko mapa](#)

---

## **AUZOLANDEGIAREN AMAIERA**

Auzolandegia azken egunean amaituko da, 18:00etan.

---

## **ASEGURUA**

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahaldunen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

---

## **ARGIBIDEAK ETA HARREMANETARAKO TELEFONOAK**

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Tel: **945 01 95 01- 945 01 95 36**

- Helbide elektronikoa: [gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es](mailto:gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es)

---

## **ARAUAK**

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak – Arauak).